

Etxebizitza eskuratzea, batez ere gazteei, errazteko ekimen berria

Kutxabankek 300 euroko saria emango dio Etxebizitza Kontu bat ireki eta hipoteka kontratatzen duenari

Pizgarria hipoteka-maileguari lotutako aurrezki-kontuan abonatuko da, eta bateragarria da hipoteka kontratatzeko hobariekin

Bankua beste ekimen batzuei atxikita dago, hala nola administrazioek sustatutako abal-programei, gazteei etxebizitza erosteko sarreraren zenbatekoari aurre egiten laguntzen diete eta

26.04.20 Kutxabankek 300 euroko saria ematen die lehen etxebizitza-kontua ireki eta gero bankuarekin hipoteka formalizatzen duten bezeroei.

Ekimena 2026ko ekainaren 15era arte Etxebizitza Kontua kontratatzen duten pertsoneri zuzenduta dago. Bezeroak 3 urte izango ditu hipoteka formalizatzeko, eta gutxienez 4 hilabete kontua ireki eta hipoteka egin bitartean.

300 euroko pizgarria hipoteka-maileguari lotutako aurrezki-kontuan ordainduko da, sinatu eta hurrengo hilaren amaieran. Hipoteka-maileguaren gutxieneko zenbatekoa 85.000 eurokoa izango da, eta ordainketa bakarra egingo da etxebizitza erosteko hipoteka-mailegu bakoitzeko.

300 euroko pizgarriaz gain, bezeroak bi abantaila gehiago ditu: bat, Etxebizitza Kontuaren errentagarritasuna, 12 hilabeterako euriborraren batez bestekoaren % 60ra iristen dena, 2025ean % 2,223koa izan zelarrik. Eta, bi, hipoteka sinatuta, gainera, 12 hilabeterako euriborraren batez bestekoaren % 40rainoko errentagarritasuna, eta erositako etxebizitza jasangarria bada, % 60rainokoa, gehienez ere 1.000 euroraino.

Kutxabank Etxebizitza Kontua ageriko gordailu bat da, mantentze-komisiorik gabea, erabateko erabilgarritasunarekin eta ordainsari bereziarekin, etxebizitza bat erosteko edo birgaitzeko aurreztera bideratua.

Etxebizitza eskuratzeko erraztasunak ematea, batez ere gazteei

Ekimen honekin, etxebizitza eskuratzeko, batez ere gazteenei, erraztasunak ematearen aldeko apustua indartu du Kutxabankek.

Testuinguru horretan, Kutxabank hainbat administrazioek –Finantzen Euskal Institutuak (Eusko Jaurilaritza), Arabako Foru Aldundiak, Andaluziako Juntak, Madrilgo Erkidegoak, Institut Català de Finances-ek (Kataluniako Generalitatea), Institut Valencià de Financesek (Valentziako Generalitatea) eta ICO-k– sustatutako abal-programei atxikita dago. Horiek guztiek laguntzen diete finantzaketan kaudimendunak izan arren etxebizitza baten sarreraren zenbatekoari aurre egiteko behar adinako aurrezkiak sortu ez duten gazteei.